

Argitalpenak

Diskoteka

Iker Barandiaran

Dut-en oinordekoak izateko merituak irabazita

Duela gutxi izan nuen Zumaiko laukotearen berri. Gasteizko gaztetxean Anestesiarekin batera aritu ziren, baina ezin izan nituen ikusi. Jakin-minak bultzatuta diskoa eskuartearen hartu eta emaitzak gustura asko utzi nau. Lehenik Dut ekarri didate burura: gitarra riff ilunek, erritmo azkar eta aberatsek, eta batez ere bateriaren lanak. Post-hardcorea egiten neurri batean hondarribiarren oinordekoak dira. Hala ere, badira bestelako sonoritate eta doinuak: Kuraia edo Sexty Sexersen pareko rock izerditsua (*Inoiz ez nauzue aldatuko, Ezinezko helmugak...*); stoner kutsu handia dutenak (*Rock a billy*) edo gordin eta arriskutsuagoak. Hitzek inguruan dutenaren gaineko hausnarketa, kritika, eta aurrera egiteko asmoa erakusten dute. Mikel Kazalisekin Fidelenean grabatu dute eta emaitza oso indartsua da.



Nerabe

Itaka

BAGA BIGA

Iraupena: 37'11"
10,95 euro

Itaka

«Disko honekin erakutsi nahi dugu bide luze eta gogor baten bidez heldutasunera iristeko ahaleginak egiten gabiltzala»

Diskoko argazkian pupitreetan jarrita agertzen zarete. Zein da taldeak emandako ikasgai garrantzitsuenak?

Hainbat aldaketa izan ondoren, lotuago gaude. Ikasgai garrantzitsuenak estudioko lana izan daiteke; maketa eta diskoa grabatzen asko ikasi dugu.

Nerabezaroan etsi gabe bizirautea bezain zaila da musika talde batek bere burua ezagutzera ematea lortzea?

Arlo bietan zaila da bizirautea, asko borrokatu behar da aurrera egiteko. Musika munduaren egoera zaila da, eta nerabezaroa ere askorentzat oso gogorra da, batez ere *bullying* agatik.

Taldea "heldu" dela uste duzue?

Oraindik asko dugu ikasteko, heltzeko bidea luzea da. Besteak beste, jendearengana iristea eta gure musika ahalik eta gehien zabaltzea falta zaigu.

Buruan zenutena ondo gauzatu duzue diskoan? Zer moduzko esperientzia izan da Kazalisekin estudioan aritzea?

Ondo gauzatu dugula uste dugu. Maketarekin ere oso gustura geratu ginen eta orduetik jakin ge nuen egu-



nen batean diskoa grabatu beharrez gero Mikelekin egingo genuela berriro. Esperientzia oso polita eta interesgarria izan da.

Promo orrian stoner gisa deskribatzen zaituztete. "Rock a billy" kantuak halako sonoritatea dauka, baina

nik gertuago ikusten zaituztet Dut edo Guzzarden post-hardcoretik...

Egia da gure musikak stoner kutsua duela, baina gure musika hainbat eragin eta estiloren nahasketa da: rock, stoner, post-hardcore, punk, metal...

Nerabezaroa garai oso berezia da zentzu askotan. Zer da zuentzat? Eta hortik zer dauka Itakak?

Nerabezaroa mila eratakola izan daiteke, nerabe bakoitza mundu bat delako. Gure ustetan aro gogorra da, baina baita polita eta zoroa ere, esperientziak helduarorako prestatzen zaitu-eta. Guk diskoan hori nahi genuen islatu, musikalki ikasten gabiltzala oraindik, eta bide luze eta gogor baten bidez heldutasunera iristeko ahaleginak egiten gabiltzala.